

ZERBITZU PUBLIKOAK - **Haurreskolak****Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen izen-ematea eta baremazio/birbaremazioaren deialdia**

Gaur bertan Haurreskolak Partzuergoak jakinarazi digu 2023ko baremazioa/birbaremazio prozesua hurrengo astelehenean, urtarrilaren 16an abian jarriko dela.

→ **PROZESUAREN EGUTEGIA**

2023/01/13	Deialdia Haurreskolak Partzuergoko web orrialdean argitaratu
2023/01/16- 2023/01/27 (biak barne)	Norberaren fitxa ikusi eta datu pertsonalak zein ordezkapenerako aukerak aldatzea.
2023/04/21	Behin-behineko zerrenda argitaratu.
2023/04/24-2023/05/04 (biak barne)	Erreklamazioak aurkezteko epea.
2023/06/02	Behin-betiko zerrenda argitaratu.
2023/06/03-2023/07/02	Gorako helegiteak tarteratzeko epea.
2022ko uztailaren bukaeran edo irailaren hasieran	Gorako helegiteen ebazpena

- LAN ESPERIENTZIARI DAGOKION **BAREMATUKO DEN ALDIA:** 2022ko urtarrilaren 16tik 2022ko abenduaren 15a arte (biak barne)
- **IZENA EMATEKO** hautagaiek baldintzak bete eta egiaztatuta izan behar dituzte 2023/01/27a baino lehen
- **KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:**
  - Aurten lehengo aldiz, izen-emate eta baremazio **prozesua osoa on-line (paperean egindako eskaerarik ez da onartuko); HEZIGUNE** atarian egin beharko da erabiltzaile eta pasahitza sartuta. Horretarako, gidaliburu bat izango da eskuragarri.
    - Eskaerak egiteko epean, jadanik zerrendetan dauden hautagaiek orain arte izandako ordezkapen aukera eta merituen fitxa ikusgai izango dute.
  - Hezkuntza Sailean irakasle gisa emandako zerbitzuak ofizioz barematuko zaizkie horretarako baimena ematen badute
  - **Informazio guztia [www.haurreskolak.eus-en](http://www.haurreskolak.eus-en) izango duzue.**

**INFORMAZIO GEHIAGO EDO ZALANTZARIK IZANEZ GERO, LAB SINDIKATUAREKIN HARREMANETAN JARRI.**

[haureskolak.ara@lab.eus](mailto:haureskolak.ara@lab.eus) – 689 68 62 07 – 637 47 40 15

[haureskolak.biz@lab.eus](mailto:haureskolak.biz@lab.eus) – 666 77 11 96 – 666 77 09 82

[haureskolak.gip@lab.eus](mailto:haureskolak.gip@lab.eus) – 674 09 45 43 – 666 77 54 84